



GORBEIALDEKO KUADRILLA Presidentziaren dedikazio partziala eta ordaindua

Erakunde honek, 2023ko azaroaren 28an egindako ohiko Kuadrillaren Batzarrean, ondorengo akordioa onartu zuen:

Lehenengoa. Erakunde honetako presidentearen ordainsariaren erregimena eta dedikazioa onartzea, 2023-2027 epealdirako, ondoren zehaztu bezala:

.- Dedikazio partziala %50ean.

.- 2023. urteko ordainsari gordinak, % 50eko dedikazio partzialagatik: 26.471,62 euro, edo azkenean legeak agintzen duena.

Ordainsari hori urte naturalari dagokio, eta 14 ordainketa egiten dira: 12, urteko hilabete bakoitzari dagozkionak, eta gainerako biak ekainean eta abenduan ordaintzen direnak.

Zenbateko hori eguneratu egingo da legegintzaldian zehar onartzen diren Estatuko aurrekontu orokorren legeetan edo, hala badagokio, administrazio publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-araubidea arautzen duten dekretuetan adierazitakoaren arabera.

Bigarrena. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta ematea. Kuadrillak bere gain hartuko du enpresaren parteko kuotak ordaintzea.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta Kuadrillaren webgunean argitaratzea. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Murgian, 2023ko abenduaren 1ean.

Presidentea

Agustín Otsoa Eribeko Landa